

## ZIO proiektua abian

**ZIENTZIA IRAKURLE ORORENTZAT** liburu bilduma hasi zuen EHUK 2003an zientzia euskaraz gizarteratzeko asmoz. Orain, hori guztia ZIO proiektuan bildu dute hainbat erakundek: EHUK, Eusko Jaurlaritzak, foru diputazioek eta Elhuyar Fundazioak. Bi adar ditu proiektuak; batek, *Irrika*, ikasleentzako dibulgazio aldizkaria, eta dagokion web gunea, [www.irrika.net](http://www.irrika.net). Bestetik, ZIO bildumak aurrera egingo du eta horren adibide azken liburua: *Gogo basatiak: zer duten animaliek benetan buruan*, Marc D. Hauser-ena.

## 25.000 artikulutik gora Wikipedian

**JOXE ARANTZABALEK** Euskarazko Wikipediari *Jakimen* emandako errepasoa jaso genuen orriotan duela gutxi. Orain, entziklopediako kideek

ohartarazi dute Euskarazko Wikipediak gainditu duela 25.000 artikuluko kopurua. Euskal Herriak Bere Eskola ekimenaren inguruko artikulua izan da 25.000. hori.

## Euskalerrria irratia legeztatzeko eskaria

**NAFARROAKO ARARTEKOAK** egin dio eskaria Nafarroako Gobernuari. Euskalerrria irratiko kideekin bildu zen Arartekoa eta ondoren Gobernuari Iruñerrian irratien lizentziak banatzeko orduan euskarazko irratiei lehentasuna emateko eskatu dio. Eskaria gutun bidez egin dio eta 2005eko abenduaren 23an Nafarroako Parlamentuak onartutako mozioa errespetatzeko eskatu dio. Mozio horretan Euskalerrria irratien egoera administratiboa legeztatzeke eskaria egiten zen, euskarazko irratia 20 urte baitaramatza Iruñerrian emititzen lizentziarik gabe.

## BAHEA

*Instituto lingüístico de invierno* blogean jasotako pasarte da, Richard E. Littlebear hizkuntzalari cheyenneak 1996an Ipar Amerikako hizkuntza natiboez egindako gogoeta. *Garaigoi-koa* blogean ikusi dugu eta pasarte bat euskaratua *Benitoren Karrajua* blogean: “Gure hizkuntza gordeko duen edozein geratzen gara liluratuta. Ondorioz, gure hizkuntza ustez salbatuko zuten konponbide bakarren letania dugu orain. Konponbide bakar bat laster beste konponbide bakar batek ordezkatzen du. Adibidez, gutako batek esan zuen: ‘Jar ditzagun gure hizkuntzak idatziz’. Egin egin genuen, eta hizkuntzek hiltzen jarraitu zuten.

Gero esan genuen: ‘Egin ditzagun hiztegiak gure hizkuntzenak’. Egin genituen hiztegiak eta hizkuntzek hiltzen jarraitu zuten.

Ondoren esan genuen: ‘Trebatu dezagun gure jendea hizkuntzalartzan’. Egin egin genuen, eta hizkuntzek hiltzen jarraitu zuten.

Gero esan genuen: ‘Eska dezagun hezkuntza elebidunerako diru-laguntza’. Egin egin genuen, eta hizkuntzek hiltzen jarraitu zuten.

Gero esan genuen: ‘Irakats ditzagun gure hizkuntzak eskoletan’. Egin egin genuen, eta hizkuntzek hiltzen jarraitu zuten.

Gero esan genuen: ‘Sor ditzagun kultur produktuak kalitatekoak’. Egin egin genuen, eta hizkuntzek hiltzen jarraitu zuten. (...)

Ondoren: ‘Bideoak egin ditzagun, gure zaharrak zeregin tradizionaletan gure hizkuntzak ahoan’. Egin egin genuen, eta hizkuntzek hiltzen jarraitu zuten. (...)

Azkenik baten batek esango du, ‘Izoztu ditzagun geratzen diren hiztun apurrak, honela teknologiak aurrera egiten duenean, haiek berpiztu eta hizkuntza natiboen hiztunak izango ditugu, eta egin egingo dugu (...)’.

Kontua da, irakaskuntza eta teknologiaren aurrerapen guztiarekin ere, eta harekin dugun menpekotasun gero eta handiagoarekin, gure hizkuntzak hiltzen ari direla oraindik”.

## TALAIAN

### Gaindegiairen argazki nazionala

Gaindegiak, sozioekonomiako euskal behatokiak, aurreko asteburuan aurkeztu zuen 2007ko Euskal Herriko benetako egoera sozioekonomikoaren inguruko hurbilketa lana. Gaindegia Txostena 2007 deiturikoa sei ataletan banatua dago: Euskal Herria 2007ko adierazleak, gakoa zifretan, adituen analisiak, urtekako azterketak, hemeroteka eta agente sozioekonomikoen direktorioa. “Benetako egoeraren hurbilketa” aurkeztu dela diogu Euskal Herriko zazpi lurraldeetako egoera sozioekonomikoaren argazki bateratua egiteko baliabide gutxi dituelako behatoki gazte honek. Izan ere, aipatutako lurraldea bost administrazioetan dago banatua gutxienez, europarra barne. Testuinguru horretan, eta Euskal Herri osoaren informaziorik ezean, ez da erraza datu estatistikoak eta analisiak bildu, landu eta interpretatzea.

Hala eta guztiz ere, formatu eroso eta erakargarria duen lehen lan orokor horren emaitza positiboa da. Horregatik goraipatu behar da arlo sozial eta ekonomikoan azken lau urteotan behatoki gaztea egiten ari den lan isila. Halaber, ona litzateke gizartearen, bere erakundeen, agente ekonomiko eta sozialen eta oro har, Euskal Herriaren aldeko apustua egiten duen edonoren kolaborazioa, horrela lortuko baita Gaindegia Euskal Herrian erreferentzia sozioekonomiko garrantzitsua izaten jarraitzea. Horrela lortuko dugu gure herriaren argazki sozioekonomikoaren irudia gero eta argiagoa, hobeto zentratu eta enkoadratua, gardenagoa eta orokorragoa izatea.

Juan Mari Arregi

## Ajuria Eneko Ituna bis?

### HISTORIA EZ DA ERREPIKATZEN.

baina batzuetan hala gertatzen dela dirudi. Gertakizun batzuk bederen ezaugarri bertsuko zikloetan begitانتzen zaizkigu joan-etorri saihestezinean. Aurtengo urtarrilean bete zen Ajuria Eneko Itunaren sorreraren 20. urteurrena, eta egunotan urte haietako zenbait pasarte birbizitzen ari garela dirudi. Negoziazio saio baten porrota, ETA eta Estatuaren jardueren gogortze zitala, eta ezker abertzalearen aurkako isolamendu politiko-sozialaren lehen saio handia.

Egun ere orduko osagai horiek mahai gainean dira eta, hauteskundeetako haizea lagun, PSOE norabide horretan ari da bultzatzen sendo EAJ. Eta ez da ikusten jeltzaleek nola eutsi ahal dioten bultzada horri. Jesus Egiguren buruzagi sozialistak joan den igandean *El País*-eko elkarrizketan iradokitzen zuenez, ETArekin amaitzeko bidean elkarrizketaren bidea ez da ixten—hori bai, erakunde armatuak armak utzi ondoren gertatuko litza-teke hori—, baina ez da hori oraingo fasea, orain “presio soziala eta Zuzenbide Estatua medio, haiek amore ematea lortu behar dugu”, zioen ETArekiko negoziazio saioaren gobernua mintzakideak.

Estatuaren errepresio jarduerari dagokionez, bada ezberdintasun oso garrantzitsu bat, nagusiki oraingoan ezker abertzalearen adar politikoari ere, “dena da ETA” leloari jarraiki, ilegalizazio eta espetxearekin erantzun diola. Presio horren emaitza zein izango den ezezagun da oraindik, baina eraginkorragoa izango da errepresaliatuekiko euskal gizartearen elkartasuna gero eta txikiagoa baldin bada, eta ETArekin jardueraren armatuaren gogortzeak gero eta zai-

lago egiten du ezker abertzale zigortuarekiko elkartasuna. Baina ETArekintzat hori ez bide da garrantzitsua, elkartasunik badago ondo, baina askoz inportanteagoa da muturreko egoerak sortzea, hemen gatazkak bere gordinean dirauela erakusteko. Nola bere jardueraren armaturako ahalmena oso gutxitua dagoen—Ajuria Eneko garaiarekiko erkatuz, esate baterako— gero eta jauzi kualitatibo handiagoak eta ulergaitzagoak eman behar ditu. Balizko emaitza? Gurpil berean jarraituz gero, oso ataka larria ezker abertzalearentzat. Arrazoi askogatik, bistan da Estatua eta hau defendatzen duten eragile nagusien egoera oso bestelakoa dela, Ajuria Eneko Itunaren garaian baino aldekoago.

**ISAIAS CARRASCOREN** aurkako hilketak eta, ondorioz, Arrasaten eta Euskal Herrian sortutako egoerak irudikatzen du une honetan egoera berria. Gaitza ikusten da EAE-ANVko alkate Ino Galparsorok alkatetzari eustea. EAJren noraezak ahalbidetu dio lehengo danbatekoari eustea, baina EAJren mobiolaren ondoren denak adierazten du bigarrenetan jausiko dela. Eta etxafuego honek Euskal Herri osorako metxa piztuko du.

Zentsura mozioa zilegi da edozein erakunde demokratikotan, gehien-goaren aldaketa esan gura du eta listo. Eta jardueraren politikoa gutxieneko etiko batzuk finkatu nahi izatea ere normala da. Baina gehiengo berri horrek gobernagarritasunerako dituen oinarriak argi geratu behar dira, eta oraingoz oinarri hori da Arrasaten argi ez dagoena, eta EAJk oraindik argitu ez duena. Oinarri etiko eta moralen gainean finkatu nahi da EAE-ANVren aurkako politi-

ka berria eta hor dago ahuldadea, oinarri etiko-moral horretan ETArekin jardueraren bakarrik hartu nahi baita kontuan, Estatuaren jardueraren errepresiboaren izaera etiko-moralaren erabat garbia balitz moduan; eta hori ez da egia, areago gaur egun, “dena da ETA”ren eskemak gero eta injustizia handiagoak sortzen dituenek ezker abertzalearen eremu sozio-politikoaren aurka.

**EAJ-K PSE-REKIN** finkatu gura duen akordio berri horretan euskal gizartearen erabakigarritasuna ezabatzen bada, oinarri ahula jarriko dio sozialistekiko akordio berriari. Herritarren erabakigarritasunarekin arre egin behar da, izan Ibarretxe planaren bertsioan, izan Loiolako bertsioan edo besteren batean, ezin dena da etengabe “erabaki behar dugu” leloaren inguruan aritu, behin ere ezer gauzatu gabe, herritarrek aspertuz eta abertzaletasuna higatuz. Ordua da abertzaletasunaren erabakigarritasunari buruzkoak argi gauza ditzan, sozialisten akordioarekin hobe, baina bestela gabe. Horrek, jakina, botere alternantziarako prestutasuna eskatzen du jeltzaleen aldetik. Ez luke arazorik izan behar sozialistek gobernatzeko, horretarako gehien-goia lortzen badute. Akordiorik ezean, aldiz, indar abertzaleek konplexurik gabeko indar metaketari ekin beharko liokete, jakinda ere, ETArekin jardun armatuak bide hori izugarri zailtzen duela, baina argi izanda halaber, gizartearen gehien-goia irabazteko hori jardueraren politiko soiletik bakarrik egin daitekeela, borroka armatuarena iraganeko kontu eginez. Estrategiarik gabe ezin da eraiki, eta egungo ETArekin estrategiarekin eraikitzea ezinezkoa da.